

«Jende masak inozoak izan daitezke»

Unibertsitateko ikasle zarela *Star Wars*, informatika eta antzeko kontuez aritzeko gune bat sortu duzu Interneten. Jendeari gustatu zaio antza. Irakurtzen dituzte zuk idatzitakoak. Hasieran gutxi batzuek. Gero gehixeagok. Eta hamar urteren buruan milioiak dira. Zorionak, mundu osoan ezaguna zara! Rob Maldaren historia da, Slashdot ([www.slashdot.org](http://www slashdot.org)) blogarena. 2.0 aroko amets amerikarrarena. Joan den astean Alianzok eta SPRIk Bilboko Guggenheim museoa antolatutako Blogak 2.0 jardunaldietan zela aprobeztatuz galdera batzuk egin genizkion.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkia: Iñigo Azkona

Zein da Slashdot eta web 2.0 etiketa daramaten beste proiektuen arteko aldea?

Egia esan ez dago diferentzia handirik. Nire ustez web 2.0 marketina da, Internetek hasieratik zeukan promesa gauzatzen duena. Web 2.0 da Internetek guri ematea espero zena. '.com burbuila' lehertu zenean ikusi zen hondoa jo zuten horien azpian benetako zerbait zegoela.

Leherketa hura aipatu duzula-eta, ez al dago arriskurik web 2.0 arrakastaz hiltzeko? Geroz eta blog gehiago dago, baina eduki askok ez dute merezi. Jendeari blogak idaztea gustatzen zaio zerbait adierazi nahi duelako. Arazoa da gehienek ez daukatela ezer interesgarria esateko. Baina hori lehenago ere horrela zen. Blogena kontu berria da, lehen web gune arruntetan egiten zen eta lehenago egunkarietan. Ez dago gainbehera

Rob Malda

etortzeko arriskurik, jendeak zerbait partekatze-ko gogoia daukan bitartean.

Gainera kasu desberdinak daude: bere katua zein ederra den azaldu nahi duen amonaxoa dago, benetan esateko zerbait daukan jendea ere bai, eta dirua irabazi nahi dutenak. Eta irakurle arruntak ez daki zeinek eskaintzen duen zer. Azkenean zuk CNN, Slashdot, zure amonaren bloga, nire amonarena eta abar daukazu. Horrek masa handi bat sortzen du eta zuk hurbildu eta nahi dituzun hamar gauzak hartu behar dituzu. Aukeraketa hori egitea da garrantzitsua, eta proiektu berriek ez dute oraindik lortu.

Slashdot aitzindaria izan zen albisteen erantzuntan erabiltzaileei moderatzaile izateko aukera ematen. Zer iritzi duzu Digg bezalako guneez? Edozein erabiltzailek bozka ditzake albisteak eta horren arabera da haien garrantzia.

Slashdot parekorik gabea egiten duena zera da: albisteak aukeratzen dituen talde txiki bat dagoela. Jende masa handiak inteligentek izan daitezke, baina baita inozoak ere. Batzuetan gu ere inozoak gara, baina badakizu nor garen eta inozoak garelako esan ahal diguzu, ez dago problemarik. Arazo hori beste modu batera konpontzen saiatzen dira Digg eta antzeko guneak. Biontzat dago lekua.

Zuk sortutako bloga ohiko hedabideen amaieraren lehen urratsa izan daitekeela uste duzu?

Bai! (kar, kar, kar). Ez, orain serio hitz eginda, ez zait iruditzen Slashdoten kontua denik bakarrik. Gu teknologia, software librea, Linux, kode irekia eta abarren inguruan egiten ari garena edozein gaiekin egin daiteke.



Zenbat urte geratzen zaizkie beraz hedabide tradizionalei? Elkarrekin bizi daitezke?

Nik uste maila batean elkarbizitza hori beharrezkoa dela. Gai zehatz batean berezitatuko kazetari bat baldin badago, jo dezagun New Yorken, eta idatzi nahi duen istorioa Espainian gertatu bada, garrantzitsua da hegazkin bat hartu eta hara joatea. Hunter S. Thompsonek hori egiten zuen, eta zerbait esaten zuen. Desberdina zen. Horrela eginez gero kazetariak bestelako ikuspuntu bat eman diezaioke istorioari. Hedabide tradizionalak garraio ona dira horretarako, baina pertsona arruntek ezin dute bihar hegaldi bat hartu eta edonora joan. Horregatik dira garrantzitsuak leku egokian eta momentu egokian dauden pertsonak. Blogak eta kazetaritza independenteak horretarako balio dute.

Zer iritzi duzu Slashdoten klonez? Euskarazko Marrapuntu, espainolezko Barrapunto, frantsesezko Barrepoint... Konpetentzia lokala izan daitezke?

Slashdoten kodea irekia da, edonork ikus dezake www.slashcode.com helbidean. Nik Barrapunto ezagutzen dut eta primerakoa iruditzen zait. Jendea animatu nahiko nuke horrelako gauzak egitera eta ondo pasatzera. Horretarako dago Internet, ideien elkartrukerako. Hori bai, agian nire lege departamentua haserretu egingo litzaiteke baten batek Slashdot izena erabiliko balu, baina hortik aurrera...

Badira ofizialak diren guneak, Japoniako bertsioa adibidez, baina Barrapunto bere kontura dabil eta ondo iruditzen zait. Slashdot ingelesez bakarrik da eta ez dut hori aldatzeko arrazoirik ikusten, komunitate batez ari garelako eta ideiak elkartrukatzeko hizkuntza komun bat behar delako. Mundu guztiak ez dauka itzultzaile bat alboan laguntzeko [elkarrizketa hau itzultzailearekin egiten ari gara].

Gustatuko litzazuke Slashdoten bideoak txertatzea?

Bai eta ez. Uste dut badela leku bat bideoa eta audioarentzat, baina jende gehienak Slashdot bulegoan irakurtzen du. Eta lan ordutan bideo bat ikusten hasten baldin bazara mundu guztia konturatuko da. Horrek ez du esan nahi bideoak leku bat izan behar ez duenik.

Abiaduraren kontua ere hor badago: irakurlearen kasuan berak aukeratzen du zenbateko abiaduran irakurri nahi duen, baina irratia entzuten ari bazara, ezin diozu esatariari azkarrago hitz egiteko eskatu. Bideoaren kasuan gelditu dezakezu, baina lau minutuko bideo bat baldin badago, osorik ikusi behar duzu. Nik oso azkar irakurtzen dut eta iruditzen zait jende gehienak hitz egiten duena baino azkarrago irakurtzen duela. ■

Slashdot hamar urte barru

“Oinarrian gauza bera izango dela uste dut. Laster hamar urte beteko ditugu eta, denbora horretan zertaz hitz egin dugun ikusita, eta zein diren hitz egiten aritu diren pertsonak, iruditzen zait beste hamar urtean ere antzera jarraituko dugula. Hori bai, erabiltzen ditugun erremintak aldatuko dira, etengabe. Eztabaida sistema, firehose... Baina egunaren bukaeran, garrantzitsuena jendeak esaten duena izango da. Espero dut hamar urte barru ere horrela izatea. Erremintak bigarren mailakoak dira. Ez duzu autoa hartzen gidatzeko, norabait joateko hartzen duzu”.

Errenteriako Ekitaldiak Ekaina

Zine Emanaldiak

Guztiek nahi zuten hilda

Helduak

Ekainak 7

Errenteria Hiria Kulturagunean, 19:30ean

Cristobal Molon

Haurak

Ekainak 9

Errenteria Hiria Kulturagunean, 11:30ean

Antzerkia

Gizona ez da txoria

Ekainak 28

Errenteria Hiria Kulturagunean, 19:30ean

Antolatzaileak: *Elkarrekin*

Eskolatik kalera jaia

**Gari, Montxo eta
Joselontxo pailazoak**

Ekainak 29

Errenteria Hiria Kulturagunean, 17:30ean



**euskara
zerbitzua**
errenteriako udala